

**Larraintzako**  
IKASTETXEA

## URTEKO PROGRAMAZIOA

<b>IKASTURTEA</b>	2019/2020	<b>IRAKASLEA</b>	Ainhoa Elizalde
<b>MAILA</b>	DBH 1	<b>ARLOA</b>	Teknologia

### HELBURUAK, OINARRIZKO GAITASUNAK, EDUKIAK, EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

24/2015 FORU DEKRETUA, apirilaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumaz ezartzen duena.

[http://www.navarra.es/home\\_eu/Actualidad/BON/Boletines/2015/127/Anuncio-0/](http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2015/127/Anuncio-0/)

#### EDUKIEN DENBORALIZAZIOA


<b>1. ebaluazioa</b>	<ol style="list-style-type: none"><li>1. Teknologia eta arazoaren konponbidea. Proiektuen metodoa. Erramientak: <b>3 saio</b></li><li>2. Adierazpen grafikoa: <b>10 saio</b></li><li>3. Testu prozesadoreak (Google Drive Dokumentuak): <b>8 saio</b></li></ol>
<b>2. ebaluazioa</b>	<ol style="list-style-type: none"><li>4. Materialak: egurra. <b>5 saio</b></li><li>5. Proiektua: Tangram-a eraiki. (2. Mailakoak diseinatu eta guk moztu eta antolatu). Txoriaren etxea proiektua: <b>9 saio</b></li><li>6. Egiturak: <b>6 saio</b></li></ol>
<b>3. ebaluazioa</b>	<ol style="list-style-type: none"><li>7. Proiektua: paperezko egitura. <b>3 saio</b></li><li>8. Elektrizitatea. <b>8 saio</b></li><li>9. Hardwarea eta sistema eragileak. Internet. <b>4 saio</b></li></ol>

#### KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

Ebaluazio bakoitzean lortuko den kalifikazioa modu honetan kalkulatu da.

- ❖ Azterketak % 50
- ❖ Lan pertsonal, taldekoak eta proiektuak %40
- ❖ Jarrerak %10

Azterketa bakoitzean gutxienez 4 atera behar da batazbestekoa egin ahal izateko. Baldin eta proiekturik ez badago ebaluazioaren batean, azterketaren pisua handiagoa izango da (%60) eta lan pertsonalak eta taldekoak %30 balioko lukelarik. Jarrerarena %10 ean geldituz. Jarreran 5-eko kalifikazio minimoa beharrezkoa da batazbestekoa egin ahal izateko.




### BERRESKURAPEN SISTEMA

Ikasturteko berreskurapenak:

- ❖ Ebaluazio bakoitzaren bukaeran, gainditu ez diren edukiak berreskuratzeko, errefortzu ariketak eta ekintzak proposatu daitezke berreskurapeneko kontrola egin aurretik.
- ❖ Azterketen batazbestekoa ezin denean egin, 5era iritsi ez diren atalak berreskuratu beharko dira.
- ❖ Berreskurapen kontroleko egunerako lanen bat entregatzea eskatzen bada, gehienez puntu bateko balioa izango du, kontroleko notari gehituko zaiona, beti ere kontrolean gutxienez 4 atera badu. Lanik aurkeztu behar ez denean, berreskurapen kontrolean 5 atera behar da gutxienez gainditzeko.
- ❖ 1. eta 2. ebaluazioek beraien berreskurapena izango dute ebaluazio bakoitzaren ondoren. 3. ebaluazioko berreskurapena ohiko deialdian egingo da.
- ❖ 1. eta 2. ebaluazioen berreskurapena gainditzen ez bada, ebaluazio osoa ekaineko ohiko deialdian berreskuratu beharko da. 3. ebaluazioko berreskurapenean gainditu gabeko atalak erreperatu beharko dira ohiko deialdian. Suspenditutako ebaluazio bakoitzarentzat azterketa bat egongo da ohiko deialdian gainditzeko eta ebaluazio bakoitzean 5 lortu behar da gutxienez.
- ❖ Ohiko deialdian ebaluazioen bat berreskuratzen ez bada, ez-ohiko deialdian ebaluazio osoa berreskuratu beharko da, gutxienez 5 lortuz.

### BESTELAKOAK: baliabideak, metodologia, aniztasuna

- ❖ **Gelara ekarri behar den materiala:**
  - ❑ Liburua: Teknologiak 1 – Anaya\Haritza (eskolakoak erabiliko dira).
  - ❑ Lan koaderno: gomendatzen da zure aniletako koaderno bateko atal bat teknologiarako gordetzea., gelako apunteak eta ariketak bertan izateko. Aniletako koaderno ez bada, espiralekoa ere erabili ahal izango da. Beti ere, koaderno handia izan beharko da.
  - ❑ Fitxen zorroa: plastikozko zorro batean zure izen abizenak, taldea ikasturtea eta ikasgaiaren izena garbi agertu behar dira. Bertan gelan banatutako fitxak gordeko dira.
  - ❑ Proiektuen zorroa: plastikozko zorro batean zure izen abizenak, taldea ikasturtea eta ikasgaiaren izena garbi agertu behar dira. Bertan proiektuekin zerikusia duten dokumentuak gordeko dira.
  - ❑ Marraketako materiala: ikasturte hasieran bereziki eta proiektuekin hasten garenean materiala ekarri beharko duzu: eskuaira, kartaboia, erregela graduatua (25-30 cm), arkatza eta borragoma.
  - ❑ Kalkulagailua.
  - ❑ USB-pendrive ordenagailuz egindako lanak gordetzeko.
  - ❑ Estutxea: idazteko materiala. Agenda.



**Larraintzarko**  
IKASTETXEA

## URTEKO PROGRAMAZIOA

❖ **Helbide interesgarriak**

-Ikastetxeko web-orria:

<http://larraintzarip.educacion.navarra.es/>

-**Arloa lantzeko** departamentuak wiki (web orri bat) bat dauka. Bertan aurkezpenak, bideoak, zuen lanak eta lotura interesgarriak aurkituko dituzu.

<http://teknologiadbh.wikispaces.com>

-Irakaslearekin kontaktuan jarri nahiez gero, hauxe da nire helbidea elektronikoa:  
[aelizalera@educacion.navarra.es](mailto:aelizalera@educacion.navarra.es)